



- Galdera, ibilguak garbitzeko 7 milioi euroko partidaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, 2019ko uztailaren 8ko uholdeen ondoriozko kalteak konpontzeko prestatu den aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, aurreko gobernuarekin alderatuta departamentuek eta zuzendaritza nagusiek izan duten guztizko gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren ondorioz departamentuek, zuzendaritza nagusiek eta izendapen askeko langileek izan duten gehikuntzaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren txofer-zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektorialaren behin betiko onespeneri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak Nafarroaren funtsei eragindako gainkostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, egoitza-lekuen kudeaketarako esparru-akordio berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Tuteran hirugarren osasun etxe bat ez eraikitzeko erabakiari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Tuteran hirugarren osasun etxe bat ez eraikitzeko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuak prentsa-ohar bat egin zuen 2019ko azaroaren 12an Tuterako alkatearekin bildu ondoren, zeinean honako hau esaten baita hitzez hitz: "Epe ertainean, ez da aurreikusten Tuteran Ekialdean (Santa Ana) 25.000 osasun-txartel indibidual baino gehiago egotea. Tuteran Mendebaldean (Gayarre), aldiz, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren arabera bai gerta

daiteke igoera bat Queiles auzoan (500 etxebizitzatza); igoera horrek, osasun-plangintzari dagokionez, 1.750-2.000 osasun-txartel indibidual gehiago egotea ekarriko luke; hartara, gehienez ere, 15.500 osasun-txartel indibidual gehiago egonen lirarteke, muga gisa gomendatzen diren 25.000 txarteletatik urrun."

Parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut:

1.- Osasun Departamentua zertaz ari da muga gisa gomendatzen diren 25.000 txartelari buruz ari denean?

2.- Zer azterlanen abala du Osasun Departamentuak bere prentsa-oharrean aipatzen duen gomendatutako muga horrek? Erants bitez azterlan horiek.

3.- Nafarroako osasun etxe bakoitzeko osasun-txartel indibidualen eta osasun-txartel indibidual atxikien kopurua.

4.- Tuteran hirugarren osasun etxe bat ez eraikitzeko erabakia Osasun Departamentuaren ustez justifikatzen duten txosten teknikoak.

5.- Ba al dago Osasun Departamentuaren Plangintza Zerbitzuaren txostenik Tuteran hirugarren osasun etxe bat eraikitzeari buruz? Baiezkoan, erants bedi txosten hori.

6.- Nafarroan 2011tik gaur arte osasun etxe berriak eraikitzeari buruz Osasun Departamentuaren Plangintza Zerbitzuan dauden txostenak.

Iruñean, 2019ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, alokairuko parke publikoko familiei hezkuntza- nahiz gizarte- arloan lagun egiteko talde bat sortzeari buruzkoa.**

*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, alokairuko parke publikoko familiei hezkuntza- nahiz gizarte- arloan lagun egiteko talde bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zertan den Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak iragarritako neurria, alokairuko parke publikoko familiei hezkuntza- nahiz gizarte- arloan lagun egiteko talde bat sortzeari buruzkoa, lau teknikariren kontratazioarekin eta erabilera eta bizikidetzarako foru agindu baten onespenearekin.

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

## **Galdera, alokairu eskuragarri eta egonkorreko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena lurzoru publikoaren gaineko inbertsio pribatuko lankidetzaren hitzarmenaren formulari jarraikiz negoziatze aldera tokiko enpresekin izandako harremanei buruzkoa.**

*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, alokairu eskuragarri eta egonkorreko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena lurzoru publikoaren gaineko inbertsio pribatuko lankidetzaren hitzarmenaren formulari jarraikiz negoziatze aldera tokiko enpresekin izandako harremanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Tokiko enpresekin izandako harremanak, alokairu eskuragarri eta egonkorreko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena lurzoru publikoaren gaineko inbertsio pribatuko lankidetzaren hitzarmenaren formulari jarraikiz negoziatze aldera. Zehaztu enpresak eta lortutako emaitzak.

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

## **Galdera, hutsik dauden beheko solairuko lokaletako etxebizitzetan egindako aldaketei eta higiezin horiek alokairuko araubidean adjudikatzeari buruzkoa.**

*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, hutsik dauden beheko solairuko lokaletako etxebizitzetan egindako aldaketei eta higiezin horiek alokairuko araubidean adjudikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hutsik dauden beheko solairuko lokaletako etxebizitzetan egindako aldaketak eta higiezin horiek alokairuko araubidean adjudikatzea, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak iragarritako neurriekin bat.

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

---

## **Galdera, bizigarritasunari buruz indarrean dagoen foru araudia berrikusi eta aldatzeari buruzkoa.**

*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, bizigarritasunari buruz indarrean dagoen foru araudia berrikusi eta aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zertan den bizigarritasunari buruz indarrean dagoen foru araudia berrikusi eta aldatzea. Sektoriko eragile profesional eta sozialekin gogoeta eta eztabaidarako prozesu bat irekitzearen gainekoa, etxebizitzaren arloko errealitate berriek 142/2004 Foru Dekretuari begira eskatzen dituzten aldaketei ekiteko. Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak iragarrita.

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

## **Galdera, udal planak taxutzeko edo berrikusteko finantzaketa arautuko duen foru dekretu bat onesteko izapideei eta Nafarroako planeamenduaren erregistroa sortzeari buruzkoa.**

*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, udal planak taxutzeko edo berrikusteko finantzaketa arautuko duen foru dekretu bat onesteko izapideei eta Nafarroako planeamenduaren erregistroa sortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zertan diren udal planak taxutzeko edo berrikusteko finantzaketa arautuko duen foru dekretu bat onesteko izapideak eta zertan den, gau egun, Nafarroako planeamenduaren erregistroa sortzea. Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak iragarrita.

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

## Galdera, I+G egiteko laguntzen 2017 eta 2018ko deialdiei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, I+G egiteko laguntzen 2017 eta 2018ko deialdiei buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 10-19/PES-00054 galdera egin du. Hona hemen Garapen Ekonomikorako kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak horri buruz informatu beharrekoa.

2017ko laguntzen deialdia, maiatzaren 20ko 91/2016 Foru Aginduaren babesean izapidetutakoa, Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 14ko 104E/2017 Ebazpenaren bidez ebatzi da. Haren kopia erantsi dugu.

2018ko laguntzen deialdia, maiatzaren 20ko 91/2016 Foru Aginduaren babesean izapidetutakoa, Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren ekainaren 29ko 140E/2018 Ebazpenaren bidez ebatzi da. Haren kopia erantsi dugu.

Laguntzak emateko baremoa laguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritakoa da. Oinarri horiek 91/2016 Foru Aginduan jaso ziren, eta martxoaren 23ko 52/2017 Foru Aginduaren bidez aldatu ziren (2017ko apirilaren 3ko NAO).

Horri dagokionez, aipatu beharra dago ezen bai laguntzak arautzen dituzten oinarriak, bai deialdiak eta ebazpen horietan jasotzen diren onuradunen zerrendak Nafarroako Gobernuaren Atariko Izapideen Katalogoko laguntzetako fitxetan argitaratu direla. Honako esteka hauen bitartez sar daiteke haietara:

[https://www.navarra.es/home\\_es/servicios/ficha/6837/Ayudas-para-realizar-proyectos-de-I-D-Convocatoria-2017](https://www.navarra.es/home_es/servicios/ficha/6837/Ayudas-para-realizar-proyectos-de-I-D-Convocatoria-2017)

[https://www.navarra.es/home\\_es/servicios/ficha/7283/Ayudas-para-realizar-proyectos-de-I-D-Convocatoria-2018](https://www.navarra.es/home_es/servicios/ficha/7283/Ayudas-para-realizar-proyectos-de-I-D-Convocatoria-2018)

Ordainketen egoerari dagokionez, berriz, honako hau aipatu beharra daukagu:

– Oro har, laguntzen edozein deialditan, ordainketen zenbatekoa txikiagoa da kontzesioena baino, diruz lagundutako proiektuetako egikaritze-ezak direla eta.

– 2017ko deialditik 2.175.209,74 euro ordaindu dira ekitaldi horretan bertan, eta 3.425.677,16 euro, berriz, 2018an.

– 2018ko deialditik 2.290.237,51 euro ordaindu dira ekitaldi horretan bertan.

– 2019ko aurrekontuari 1.696.691,73 euro gehitu zaizkio 2017ko deialdiko laguntzak ordaintzeko; laguntza horiek 2018ko aurrekontuaren kargura eman ziren, baina ezin izan ziren ekitaldi horretan ordaindu zeren eta haien justifikazioa urte horretako azken asteetan egin baitzen, eta ez baitzen aukerarik egon nahitaezko egiaztapenak egiteko.

– 2019an zehar, nahitaezko egiaztapenak egiten ari dira, baimendutako ordainketak ekitaldi horren kargura egiteko. Horri buruz, esan beharra daukagu ezen, proiektuak egikaritzearen eta konturako ordainketen egiaztapenak aurkezteari buruzko oinarri arau-emaeetan ezarritako egutegiaren arabera, 2017ko deialdiari buruzko proiektuen egikaritzearen gaineko egiaztapenak aurkezteko epea 2019ko uztaietan iritsi dela mugaegunera, eta une honetan nahitaezkoak diren egiaztapenak egiten ari direla. 2018ko deialdiko konturako ordainketak 2019ko azarotik aurrera egingen dira.

Iruñean, 2019ko irailaren 24an.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

(Oharra: Aipatutako eranskinak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketarako Ágora sisteman)



## **Galdera, nekazaritzako elikagaien industrian inbertitzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, nekazaritzako elikagaien industrian inbertitzeko laguntzen deialdiari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma (NA+) taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera parlamentarioa egin du nekazaritzako elikagaietarako laguntzen deialdiari buruz (10-19/PES-00055). Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak galdera horri erantzuteko ematen dion informazioa:

Nekazaritzako elikagaien industriak, bere balio-katearekin, Nafarroako sektore estrategiko hori egituratzen du eta hartan trakzio-indarra egiten du, Nafarroako Garapen Adimendunaren Estrategian (S3) jaso bezala. Hori dela eta, hainbat laguntza-ildo bideratzen zaizkio. Foru Komunitatearen aurrekontu osoan ekarpen handiena jasotzen duen sektorea da. Laguntza hori lagungarri gertatzen ari zaio gainerako industria-sekto-

reetan baino erritmo biziagoan hazteko, fakturazioan, enpleguan eta esportazioetan.

Nekazaritzako industrien inbertsiorako laguntzen deialdiak, 2017koak, jarduketa batzuk aurreikusten zituen, argitaratu zen egunetik 2017-10-25etik 2019-06-30era doan aldirako.

Nafarroako Gobernuak deialdi hori berriz ateratzeko daukan asmoari buruz, jakitera eman behar dizut 2019-08-07an nekazaritzako industrietan inbertsioak egiteko laguntzen deialdia argitaratu zela. 2019ko deialdi horren arabera, 2019-11-30era arte zabalik dago eskaerak aurkezteko epea; eta jarduketak egiteko epea, berriz, deialdia argitaratu zenetik 2020-06-30era arte doa. Deialdiak 10.042.350 euroko aurrekontua du.

Une honetan, eskaerak jasotzen ari gara, eta gaur den egunean 29 eskaera jaso ditugu jada; horietatik, 3 ez dira bideragarriak (1 onuradunak berak deuseztatu du eta 2k ez dute deialdiaren helburua betetzen). Horrenbestez, gaur arte 26 eskaera daude.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola



## **Galdera, gazte-garraioko txartel bateratua ezartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gazte-garraioko txartel bateratua ezartzeari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du gazte-garraioko txartel bateratuari buruz (PES-00056).

Zehazki, galdetzen du inolako kudeaketarik egin den, Nafarroako Gobernuko departamentuen eta zerikusia duten gainerako alderdien artean, gazte-garraioko txartel bateratua ezartzeko, 2015eko uztailetik 2019ko uztailera bitartean.

Baiezkoan, aipatutako epean egindako bilere-tako akten kopia eskatzen dut; ezezkoan, berriz, arrazoiak zen diren galdetzen du.

Galdera horri erantzuteko, honako hau informatu behar dizut:

Joan den legegintzaldian, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak eta Nafarroako Gobernuko Herri- lanetako eta Garraioko zuzendariak lan-bilera bat egin zuten, eta haren emaitza izan zen Nafarroako Gobernuaren gazte-garraioko txartelaren adin-tartea zabal-tzea, 25 urtera artekoa izatetik 30 urtera artekoa izatera pasa zedin. Halaber, laguntza ibilbide osora zabaldu zen, eta ez soilik Nafarroatik iragaten den tartera.

Zuzendari nagusien arteko ohiko lan-bilera bat izan zenez, ez zen egindako bileraren aktarik egin.

Nolanahi ere, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak bere lan-ildoan artean dauka gazte-garraioko txartel bateratu bat egon dadin gure erkidegoan, zeren eta haren ustez onuragarria izan balitzateke Nafarroako gazteentzat.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an.

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Los Arcosko zirkuitua dela-eta dagoen erosteko aukerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Los Arcosko zirkuitua dela-eta dagoen erosteko aukerari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du LAMS enpresa aurrerantzean ere Los Arcosko zirkuituaren errenta-hartzailea izateari buruz, urtean 300.000 euroko prezioan eta 15 milioi euroan erosteko aukerarekin (10-19/PES-00057). Hona hemen Kultura eta Kiroleko kontseilariak horri buruz informatu beharrekoa:

Zer alde dago Los Arcosko zirkuitua eraikitzeak diru publikoentzat ekarri zuen kostuaren eta erosteko aukerarako ezarritako prezioaren artean?

Garai hartan Circuito Los Arcos, SL izena zeukan merkataritza-enpresaren 2010eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuetan (gaur egun, Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, SL da) ageri da Nafarroako Zirkuituari atxikitako ibilgetuak 52.162.000 euroko kostua duela.

Loturarik ez dago aktibo baten eraikuntza-kostuaren eta hura saltzeko balizko operazio batean aktibo horrek merkatuan izan dezakeen balorazioaren artean.

Zer azterlanek edo txostenek justifikatzen dute erosteko aukera gisa 15 milioi euroko diru kopurua ezartzea?

Sozietateak "Binnacle Consulting Group" aholku-enpresak 2018ko ekainean egindako txosten bat badu, zeinean mundu osoko abiadura zirkuituen salerosketa operazioen balorazio bat, 20-40 MUSD-ekoa, egiten baita (16-33 MEUR, une hartako truke-tasaren arabera); halere, operazio bakoitzak bere kasuistikak dauzka, Nafarroako Zirkuituarekiko balizko konparazioak zailtzen dituztenak.

EBITDA biderkatzaileen (Enpresak erosteko operazioetako metodologia komuna-M&A) bitartezko analisiak eginez, Nafarroako Zirkuituaren gaur egungo balorazioa 6 MEUR ingurukoa da; zenbateko hori oinarrituta dago zirkuituko sozietate ustiatzailearen (gaur egun, Los Arcos Motosport, SL) kutxa libreko egoera finantzarioetan eta kutxa libreko fluxuetan.

Los Arcosko zirkuituaren errentamendu-kontratu, erosteko aukera duena, 2019ko uztailaren

23an egin zen, eta hark indarra hatzeko data 2020ko urtarrilaren 1erako ezarri zen, errentaria hautatzeko kasuko deialdia konpainiaren web-orrian eta Navarra.es argitaratu ondoren. Nafarroako Zirkuitua erosteko aukeraren gutxieneko prezioa 15.000.000 eurokoa zela ezarri zen (prezio hori eguneratu zitekeen Nafarroako KPIa aplikatuz aukera egikaritzeko denborari), amaieran kontratua gauzatzeko hautatu zen hautagaitzak planteatutako proposamenari erantzunez eta aurrez aipatutako balorazioak kontuan hartuta.

Errentamendu-kontraturako deialdira aurkeztu zen beste hautagaitzak 15.000.000 euroko erosteko aukera proposatu zuen (prezio hori ezin zen eguneratu).

Horrenbestez, deialdia argitaratuta, aurkeztu ziren bi hautagaitzek 15.000.000 euroko erosteko aukera proposatu zuten.

Halaber, Nafarroako Zirkuituaren errentamendu-kontratu erantsi dugu, 2019ko uztailaren 23an egina; haren indarraldia 2020ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 5 urteko iraupena izanen du. (I. eranskina).

Kontratu horri buruzko kontratu edo dokumentu partikularrik ez dago.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman)

## **Galdera, Tafallatik Iruñera bitarteko autobide-tartea uztailaren 9tik abuztuaren 7ra bitarte liberalizatzearen kostuari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallatik Iruñera bitarteko autobide-tartea uztailaren 9tik abuztuaren 7ra bitarte liberalizatzearen kostuari

buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du 2019ko abuztuaren 7an, 1450 zenbakiarekin erregistratua (9-19/PES-00058), Zidakos ibaiak uztailaren 8an gainezka egin ostean, Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiari buruz, alegia, ez zuela AP15 autobidean bidesaririk kobratuko harik eta “Mañoaren bidegurutzea” lagunarteko izenez ezagutzen den horretako kalteak konpondu arte. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz informatu beharrekoa:

Horri buruz parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

– Zenbat diru publiko ordainduko dio Nafarroako Gobernuak Audenasari Tafallatik Iruñera bitarteko autobide-tartea uztailaren 9tik abuztuaren 7ra bitarte liberalizatzeagatik?

Nafarroako Gobernuak eta Audenasak Imarkoaingo ordainlekuan bidesariaren prezioa aldi baterako kentzeari buruz 2019ko uztailaren 31n izenpetutako hitzarmenaren (2019-08-28ko 169. NAO on argitaratu zen) hirugarren klausulak honako hau ezartzen du: “Nafarroako Gobernuak eta Audenasak 2000ko otsailaren 28an, 2002ko urtarrilaren 30ean, 2007ko maiatzaren 25ean eta 2008ko martxoaren 14an sinaturiko hitzarmenek ezartzen dute Nafarroako Gobernuak Audenasari, bidesarietan deskontuak aplikatzeagatik, ordaindu beharreko konpentsazio ekonomikoa; kalte-ordain horren zenbatekoa kasuan kasuko aldiaren espero zen diru-bilketa teorikoaren eta egiazko diru-bilketaren arteko diferentzia da.

Nafarroako Gobernuak Imarkoaingo ordainlekuan bidesaria aldi baterako kentzeak emakidadunaren egiazko diru-bilketa murrizten du, eta, beraz, Nafarroako Gobernuak egiten duen diru-ekarpena handitzen du, zenbateko berean. Hori dela eta, Audenasak jaso beharreko diru-sarrerak besterik gabe berrerekatzen direnez, ez da beharrezkoa konpentsaziorako orain dagoenaz beste bitartekorik ezartzea. Horrenbestez, konpentsazioa kalkulatzeko formulak indarra izanen du orain ere, aipatutako hitzarmenetan ezarritakoarekin bat.”

Horrenbestez, ez da erraza Nafarroako Gobernuak uztailaren eta abuztuaren ordaindu beharreko

konpentsazioan bereiztea Imarkoaingo bidesaria aldi baterako kentzeari dagokion zatia eta deskontuen merkataritza-politikaren ohiko konpentsazioa, zeren eta, alde batetik, “barrerak igotzearen ondorioz” ezin baitira identifikatu erabiltzaile-mota eta bidesariaren prezioa eta indarrean den deskontu-politika aplikatu izan balitzaio ordainduko zukeen zenbatekoa.

– Zer egunetan berrezarri zen N121eko zirkulazioa “Mañoaren bidegurutzea” izenekoaren parean?

Nafarroako Gobernuak abuztuaren 5eko arratsaldean argitara emandako prentsa-oharraren arabera, abuztuaren 6an Puiun trafikorako ireki zen N-121 errepidearen eta Lergako portura doan errepidearen bidegurutzea, eta Nafarroako Gobernuak kontzesioan daukan ordezkariak Audenasari eman zion jakitera abuztuaren 7an, asteazkenez, 0.00etan amaiera eman behar zitzaiola Imarkoaingo ordainlekuko bidesariaren prezioa aldi baterako kentzeari, eta une horretan bidesariaren prezioa berriz ordaintzen hasiko zela, bai eta ordainleku horretako bidesariari deskontuen merkataritza-politika aplikatzen ere.

– Nafarroako Gobernuak ba al du uztailaren 8ko uholdearen ondorioz Audenasak bere azpiegiturek eragindako kalteei buruzko azterlan edo txostenik egin izanaren ziurtasunik?

Halakorik badago, hori igortzea eskatzen dut.

Nafarroako Gobernuak daukan informazioaren arabera, Audenasak ez du inongo azterlanik egin bere azpiegiturek uztailaren 8ko aparteko uholdean eragindako kalteei buruz. Enpresa horrek egin dako txosten eta azterlanak bideratu dira zehaztera uholdeak zein kalte eragin zituen azpiegituran, eta hura konpontzeko behar diren jarduketak zehaztu eta baloratzera.

Nolanahi ere, Audenasa enpresa pribatu bat da; horrenbestez, ez da bidezkoa eskatutako informazioa bidaltzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## Galdera, Etxarri Aranazko jaietako programari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Etxarri Aranazko jaietako programari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatzizko galdera egin du Etxarri Aranazko jaietako programarekin lotutako alderdi batzuei buruz (10-19/PES-00059). Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuak Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak erantsita datorren informazioa bidaltzen dizu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Barneko zuzendari nagusiaren txostena

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatzizko galdera egin du, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Nafarroako Etxarri Aranaz herriko jaietako programako ekitaldi batzuk direla-eta, zehazki "Inutilan Egune" deitutakoa dela-eta, hartu dituen neurriei buruz.

Foruzaingoaren Informazio Dibisioak jakin zuen, programatutakoa baino lehenago, Etxarri Aranatz, Nafarroan, "Inutilan Egune" ospatzekoa zela herriko jaietan, eta deialdi horren jarraipen-jarduketak egin zituen, ordenamendu juridikoaren aurkako jarduketarik gertatzen bazen ere.

Honako aldeez aurreko jarduketak egin ziren:

– Informazio Dibisioak Instagram sare sozialeko kontu bat lokalizatu zuen, zeinetatik "Inutilan Egune" deitutakoaren lehen iragarki-afixa argitaratu baitzen.

• Aipatutako afixa Etxarriko Gazten Asanbladak sinatuta dago, eta 2019ko abuztuaren 9rako programa osoa egonen dela iragartzen du. Jakinarazi behar dugu programa hori aztertuta, ondoriozta daitekeela agenteen ustez ez dela antzematen zigor arloko legez kanpoko egitaterik dagoenik. Deitutako ekitaldiak baino egun batzuk lehenago, beste informazio garrantzitsu bat lortu zen.

• 2019ko abuztuaren 9an, auto judiziala jaso zen, zeinak xedapen-zatian honako hau baitio:

1.- "Prozedura honi buruz jakiteko konpetentzia errefusatzeari".

2.- "Iruñeko (Nafarroa) Instrukzio Epaitegien aldeko inibizioa erabakitzea. Jarduketa hauen lekukotasunak jasotzea, horren berri epaitegi horri emateko. Jatorrizko autoak epaitegi honetan gertatu dira, igortzeko zain, Prozedura Kriminaleko Legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3.- "Ezezkoa ematea "Inutilan Egune" deitutako ekitaldia debekatzeko eskariari. Ekitaldi hori gaur egingen da, 2019-08-09an, Etxarri Aranatz.

4.- "Ofizio bat igortzea Nafarroako Gobernuak Barne Departamentuari eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, "Inutilan Egune" deitutako ekitaldiaren gaineko bidezko kontrola eta jarraipena egin ditzaten. Ekitaldia gaur izanen da, 2019-08-09an, Etxarri Aranatz herrian, eta behar diren neurriak hartuko dira gorrotoa probokatzeko delitua izan daitezkeen ekintzak egin daitezkeen saihesteko, adierazitako terminoetan, eta halakorik gertatzen diren, egileak identifikatu eta atxilo daitezkeen".

Nabarmendu beharra dago zein datatan eta zein ordutan jaso zen ofizioa (2019-08-09ko 18:28an); izan ere, ekitaldiak egun bereko, 2019-08-09ko 12:00etarako programatuta zeuden.

Dibisioko Burutzak, aurreko apartatuan aipatutako autoa jaso ondoren, kasuko aginduak eman zituen Etxarri Aranatz 2019ko abuztuaren 09an hasitako gainerako ekitaldien jarraipena egin zedin.

Dispositiboak honako hau informatu zuen:

• Eguraldi baldintza txarrak (ekaitz handi bat) direla eta, jendeak herriko Kale Nagusiko establezimenduetara eta jarritako barretara jo zuen.

- Ez da ikusi inongo ekitaldirik egin denik “Inutilan Egune” deitutakoaren harira. Herriko jaietako azken eguna da; beraz, jende asko ikus daiteke inguruetan, baina ez da nabarmentzeko moduko ezer, ez bada neska gazte bat mozorrotuta dagoela, guardia zibilaren hirugarrekoa buruan.

- 22:00ak aldera, dispositiboa herritik joan da, herritarren segurtasuna nahasteko moduko inongo aldarrikapen-ekitaldirik ikusi gabe.

- Geroztik Altsasuko Foruzain Etxean zerbitzuan zegoen patruila uniformatuarekin kontaktatu da, eta jakinarazi digute EZ dutela inongo abisurik jaso Etxarri Aranaztik.

Azkenik, nabarmendu beharra daukagu ospakizun hori, herriko jaietan kokatuta dagoena, eta gaur egun duen formatu berarekin, 2014tik ospatu izan dela.

Halaber, nabarmendu beharra dago Auzitegi Nazionalak berak, 2017an, auto bidez irizpena eman zuela esanez antzeko xedea zuen ekitaldi bat (“Fatxari tiro egin” deitutakoa), zeinean arrautzak eta pintura jaurtikitzen baitziren guardia zibilen, polizien, monarkiaren, elizaren eta estatuaren irudietara, “adierazpen askatasuneko” ekitaldi bat zela.

Horri erantsi diogu: 1. ERANSKINA. 00838901 zk-ko txostena. Terrorismoa goraiatzeko pankarta bat erretiratzea (Zigor Kodearen 578. artikulua).

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Barneko zuzendari nagusia: Amparo López Antelo

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman)

## **Galdera, Miarritzen G7ren goi-bilera eginen dela-eta Nafarroako Gobernuak hartuko dituen bide-segurtasuneko neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Miarritzen G7ren goi-bilera eginen dela-eta Nafarroako Gobernuak hartuko dituen bide-segurtasuneko neurriei buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatzizko galdera egin du, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Miarritzen G7ren goi-bilera egin dela-eta Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriei buruz. Hona hemen erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, abuztuaren 20an, departamentuarterko lantalde bat sortu zuen, G7ko liderren goi-bilera Miarritzen egiteak Foru Komunitatean eragin zitzakeen ondorioak kudeatzeko.

Lantaldean honako hauek hartu zuten parte: Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilaria, Barneko zuzendari nagusi Amparo López, Garraioko zuzendari nagusi Berta Miranda, Komunikazioko eta Erakundeetako harremanetako zuzendari nagusi Pablo Roncal, Eraldaketa Digitaleko zuzendari nagusi Guzmán Garmendia (zeina eskuduna baita telekomunikazioen arloan), Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ordezkariak eta Foruzaingo buru Juan Carlos Zapico.

Lantaldea eratu zen goi-bilerak segurtasunean eta larrialdietan izan zitzakeen ondorioen etengabeko jarraipena egiteko, bai Frantziarekin mugakideak diren herrietan, bai Nafarroako Foru Komunitateko errepideko zirkulazioan. Talde horrek eta haren arduradunek modu koordinatuan lan egin zuten Eusko Jaurlaritzako eta Gobernu Zentraleko segurtasuneko eta trafikoko arduradunekin. Halaber, maila operatiboan, Foruzaingoa koordinatu zen Guardia Zibilarekin, Polizia Nazionalarekin, Ertzaintzarekin eta Frantziako Gendarmeriarekin.

Abuztuaren 21ean, Nafarroako Gobernuak gomendatu zuen abuztuaren 27ra arte, asteazkenez, geroratzea Frantziarako bidaia guztiak, goi-



bilerak trafikoa eragin zitzakeen arazoak zirela eta.

Abuztuaren 22an, Barne zuzendari nagusiak Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez ibilgailu astunen (7,5 tonatik gorakoak) Frantziako norabideko trafikoa murrizten baitzen hilaren 23ko, ostirala, gauerditik, hilaren 24ra arte, larunbata. Zirkulazioa hilaren 26ko 18:00etatik aurrera hasiko zen berriz ere. Neurri hori hartu zen goiz hartan Donostian Frantziako eta Espainiako estatuen arteko koordinazio operatiboko bilera bat egin ondoren, zeinean Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak parte hartu baitzuten. Bileran baloratu zen Foru Komunitateak ere ibilgailu astunen trafikoa murriztea Eusko Jaurlaritzak eta Frantziako agintariak onetsitako antzeko terminoak erabiliz, auto-ilarak eta kamioiak Nafarroako lurretan pila zitezzen saihesteko. Neurri horiek hiru egunez luzatu ahalko ziren, EAEko eta Pirinio Atlantikoetako neurri murriztaileei amaiera eman bitartean.

Hartara, debekatu zen 7,5 tonatik gorako ibilgailuek iparralderantz zirkula zezatela zuzenean Frantziarekin konektatzen duten Foru Komunitateko errepide-sareko bost bide nagusietako bakarretik ere: Iparraldeko autobia (A-1) eta Leitazarango autobia (A-15); N-121-A eta N-121-B errepideak (Iruña-Frantzia Behobiatik eta Dantxarinetik, hurrenez hurren), eta N-135 errepidea (Iruña-Frantzia, Luzaidetik) Debekua, halaber, Nafarroa eta Frantzia zuzenean lotzen dituzten bigarren mailako errepide-sareko hogeitabi errepidetara zabaldu zen.

Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoak eta Guardia Zibilak aparkaleku-poltsak gaitu zituzten Foru Komunitateko ohiko industrialdeetan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Berako, Aurizko eta Luzaideko osasun-etxeetan zerbitzua ematen duten anbulantzien multzoa handitu zuen, Frantziarekin mugakide diren osasun-etxeetako eta kontsultategietako ohiko zerbitzuak normaltasunez eman zitezzen bermatzeko, bai eta gune horietako asteburuetakako ospitale kanpoko larrialdi zerbitzuak ere.

Prebentzioari begira, Osasun Departamentua harremanetan egon zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin eta Baionako Ospitalearekin, hurbiltasun arazoak tarteko Nafarroako herri batzuetatik Gipuzkoako ospitaleetara eta Baionako Ospitalera egin ohi diren deribazioak koordinatu eta bermatzeko.

Halaber, Frantziarekin mugakide diren herrietako joan-etorrietarako zailtasun handiak gerta zitezkeela aurreikusita, 112ko Koordinazio Aretoak

aurreikusita zeukan helikopteroak erabiltzea gaixo larriak osasun-etxeetara eta ospitaleetara eramateko; izan ere, halakoak, bestelako egoeretan, anbulantziak eramaten dira. Ez zen helikopteroak erabiltzeko beharrik izan.

Azkenik, aipa daiteke Garraio Zuzendaritza Nagusiak komunikazio-bide iraunkor bat ireki zuela sektoreko elkarte nagusiekin, profesionalen informazioa bi norabidetara joan zitezkeen, eta arintasunez.

Ondoren, Foruzaingoko Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloak egindako ekintza nagusiak xehakatzen dira, goi-bilera baino lehenagokoak eta hura eta gerokoak, gerta zitezkeen gorabeherak ahal zen guztian gutxitzeko eta saihesteko.

- Arkauten (Araba) egindako bilera, 2019ko uztailaren 11n. Bilera hartara joan ziren Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako (Guardia Zibila, Polizia Nazionalea, Ertzaintza eta Foruzaingoa) langileak eta Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta Nafarroan dauzkan ordezkarietako, Segurtasunerako Estatu Idazkaritzako eta Eusko Jaurlaritzako hainbat agintari.

- Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloko (Foruzaingoa) buruaren eta Gipuzkoako Lurralde Unitateko (Ertzaintza) buruaren arteko informazio-trukea.

- Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren komunikazioa, zeinean ohartarazten baita goi-bilera dela-eta arazoak sor daitezkeela Nafarroako Gobernuak, eta orain aztergai dugunari begira, Foruzaingoak erabiltzen duten komunikazio-sistema (Tetra sistema).

- Foruzaingoko Garraio Taldeko buruak egindako txostenak, Euskal Autonomia Erkidegoak trafikoa dela-eta ezarritako murriztapenei eta halakoei Nafarroako errepideetan eragin zitzaketan kalteei buruzkoak.

- Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloko eta Bide Segurtasuneko Dibisioko buruzagien arteko bilera, ekintza-plan bat ezartze aldera.

- Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuarekiko —Trafiko eta Bide Segurtasunaren Atala— komunikazioa.

- Nafarroan Ekintza Polizialen Koordinaziorako Batzordearen bilera berezia, Bide Segurtasunaren esparrua dela eta, Guardia Zibilaren Trafiko Taldeko eta Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloko eta Bide Segurtasuneko Dibisioko (Foruzaingoa) buruak bertan direla, goi-bilera dela-eta

baterako jarduketa-plan bat ezartzeko. Laburbil-  
duz, jasota utzi behar da Gipuzkoarekiko komuni-  
kabide nagusien banaketa bat egiten dela, Guar-  
dia Zibilaren Trafiko Taldearen (A1, A10, N-135  
eta NA-138) eta Foruzaingoaren (A-15, N-121-A  
eta N-121-B) artean.

- Foruzaingoaren lan-mahai baterako deialdia, bertan honako hauek daudela: Elizondoko, Altsasuko eta Zangozako foruzain etxeetako buruak; Prebentzioko eta Herritarrak Babesteko Dibisioko burua (Iruña), Aginte eta Komunikazio Zentroko burua eta Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloko eta Bide Segurtasuneko Dibisioko eta Garraio Taldeko arduradunak.

- Egoerak ukituta egon eta Foruzaingoak kontrolatu behar dituen bideen azterlana (Guardia Zibilaren Trafiko Taldearekiko banaketa eta ondoren), ibilgailu astunen balizko trafikoari eta trafikoaren arloko eraginaren araberrako aukerako balizko bideei buruzkoa.

- Oiarzungo Ertzain etxeko jarraipen polizialaren mahaiaren deialdia, zeinean krisialdi-mahai bat ezartzen baita, bertan Estatuko Segurtasun Indar eta Kidego desberdinetako (Guardia Zibila, Polizia Nazionala, Ertzaintza, Irungo tokiko polizia eta Foruzaingoa) arduradunak eta Eusko Jaurlaritzako (Segurtasuneko sailburuordea) ordezkariak daudela, goi-bileran zehar bilera arruntak eta bereziak eginez, goi-bilera horren garapenaren arabera.

- Zerbitzu-agindu bat egitea, G7aren goi-bilerak trafikoan eragindako kalteak direla eta. Horren arioren, Foruzaingoko hainbat baliabide mobilizatu ziren eta agenteentzako jarraibideak eman ziren, goi-bileraren bilakaeraren arabera (egoera normala, trafiko astunaren pilaketa eta mugen itxiera).

- Panalen eta mezu aldakorren bidezko seinaleztapenaren ardura duten Herri-lanetako zerbitzuen koordinazioa.

- Goi-bileraren garapenean zehar trafikoaren egoerari buruzko bertatik bertarako gainbegiratzea (Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloko eta Bide Segurtasuneko Dibisioko buruen eskutik). Herritarrekiko komunikazio etengabea, Foruzaingoaren Twitter orriaren bitartez.

Trafikoari buruzko dispositibo berezia Nafarroan (2019ko abuztuaren 23tik 26ra):

Euskal Autonomia Erkidegora eta Frantziara iristeko Nafarroako Foru Komunitatean dauden bideetan trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko dispositibo berezia, Miarritzen 2019ko abuztuaren 24tik 26ra G7ren goi-bilera ospatzearen karietara.

Nafarroako trafikoan gerta litezkeen zailtasun eta afekzioak direla eta, baterako dispositibo bat ezarri zen Guardia Zibilarekin. Dispositiboa 23an hasi zen, 06:00etan eta 26an amaitu zen, 18:00etan. Honela banatu ziren bideak bi kidegoen artean:

- Guardia Zibila: A-1, N-135 eta NA-138 errepedetako gorabehera guztiez arduratuko da.

- Foruzaingoa: A-15, N-121-A eta N-121-B errepedetako gorabehera guztiez arduratuko da.

Abuztuaren 26an, astelehenez, 18:00etan, ibilgailu astunen trafikorako abuztuaren 23tik aurrera, asteazkenez, dekretatuta zegoen murriztapena altxatu zen, aipatzeko moduko gorabeherarik gertatu gabe. Gainera, Nafarroako muga-herrietako osasuneko oinarrizko arreta eta larrialdietakoa normaltasunez eman ahal izan ziren.

Iruñean, 2019ko irailaren 24an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía



## **Galdera, ibilguak garbitzeko 7 milioi euroko partidaren egoerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ibilguak garbitzeko 7 milioi euroko partidaren egoerari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ibaietako ibilguak garbitzeko 7 milioi euroko partidaren egoerari buruz, bai eta lan horien eta gastuaren beteazpen-mailari buruz ere (10-19-PES-00061).

Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Estatuaren 2018rako aurrekontu orokorretan, 2019rako luzatutakoetan, 2003.23.226.0035 zenbakiko partida dago, "Ibilgu publikoen mantentzea eta kontserbazioa" izena duena. 7.000.000 milioi euroko zenbatekoa du. Hala eta guztiz ere, partida hori, Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren barruan (gaur egungo Trantsizio Ekologikorako Ministerioa, MITECO), Ebroko Konfederazio Hidrografikoari atxikita dago; horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ez du esku-menik beste administrazio bateko partida baten betearazpen- eta gastu-mailari buruz erantzuteko. Galderari Ebroko Konfederazio Hidrografikoak erantzun beharko lioke.

Iruñean, 2019ko irailaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, 2019ko uztailearen 8ko uholdeen ondoriozko kalteak konpontzeko prestatu den aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2019ko uztailearen 8ko uholdeen ondoriozko kalteak konpontzeko prestatu den aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du uztailearen 8ko

uholdeen ondoriozko kalteak konpontzeko prestatu den aurrekontu-zuzkidurari buruz eta jakiteko ea Gobernuak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin batera, abiarazi duen lege-mekanismorik eta gaitu duen aurrekontuetan agertzen dena ibilguetan urak herrestan eramandako materialak kentzeko (10-19-PES-00062). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren 2019ko irailaren 4ko erabakiaz, jarduketa-plan bat onetsi zen Nafarroako Foru Komunitatean 2019ko uztailean gertatutako aparteko eurite eta uholdeek eragindako kalteak konpontzeko, eta baimena eman zitzaion Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari hura betearazteko aurreikusita dagoen urte anitzeko gastu-konpromisoa hartzeko.

– 720000-71510-7609-414400 partida, "Titular-tasun publikoko nekazaritza azpiegiturak konpon-

tzeko laguntzak, aparteko uholdeengatik”: 1.700.000 euro.

– 720000-71510-7819-414100 partida, “Ureztatzaileen Elkarteen nekazaritza azpiegiturak konpontzeko laguntzak, aparteko uholdeengatik”: 420.000 euro.

– 710000-71210-4700-412107 partida, “Aparteko uholdeak direla-eta azpiegitura pribatuetan izaniko kalteak eta errenta-galera arintzeko laguntzak”: 800.000 euro.

– 710000-71210-7700-412100 partida, “Aparteko uholdeak direla-eta azpiegitura pribatuetan izaniko kalteak eta errenta-galera arintzeko laguntzak”: 500.000 euro.

Planean aurreikusitako ekintzei dagokien gas-tua horietako bakoitzerako onetsiko da, aurrez aurrekontu-kontsignazio egoki eta nahikoa eginez, kasuan kasuko laguntza-deialdien bitartez.

Erabaki honen 2. puntuan identifikatutako partiden izaera zabalgarria kontuan hartuta, deialdiek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 31.3 artikuluan jasotako aurreikuspena jasoko dute; hartara, deialdiek, baliagarri dauden kredituen barruko guztizko zenbatekoaz gainera, gehieneko zenbateko gehigarri bat ezarri ahalko dute, eta hura dirulaguntzak emateari aplikatzekoa ez denez, ez da beste deialdirik egin behar.

Bestalde, ibilguetako kalteei dagokienez, joan den uztailaren 8an gertatutako uholdeen ondorengo jarduketak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren Ibilguen Kontserbazio Programaren kargura egiten ari dira. Ebroko Konfederazio Hidrografikoa jarduketa horiek egiten ari da bere aurrekontu-zuzkidurekin eta esleituta daukan eskumena baliatuz.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernu eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa beren jarduketetan koordinatuta daude, eta kasuko txostenen izapidez arintzen ari dira.

Iruñean, 2019ko irailaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

### **Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00062). Hona Nafarroako Gobernuak horri buruz ematen dion informazioa:

“1. 2019ko uztailaren 8an uholdeak gertatu ziren Nafarroaren Erdialdean, zeinen ondorioz laster konponduko kalteak eman baitziren azpiegiturretan nahiz nekazaritzako ekoizpenetan. Zer aurrekontu-zuzkidura gaitu du Nafarroako Gobernuak?

2. Gobernuak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin batera, abiarazi al du lege-mekanismoak eta gaitu al du Aurrekontuetan agertzen dena ibilguetan urak herrestan eramandako materialak kentzeko?

Galderari erantzunez hauxe adierazten da:

a) Lehenengo puntuari dagokionez:

1.- Toki Administrazioiko zuzendaritza Nagusia 890.593,62 euroko (BEZik gabe) larrialdiko obrak egiten ari da 2017-2019 urteetarako Tokiko Azpiegituren Planaren barruan. Obra horiek Mairagako Mankomunitateak eta Tafalla, Orisoain, Oloritz, Erriberri, Pitillas, San Martin Unx eta Puiu herriek eskatu dituzte.

Horretaz gainera, NILSA sozietate publikoa 124.150,60 euroko (BEZik gabe) konponketan egiten ari da kudeatzen dituen arazketa-instalazioetako datuak konpontzeko: Barasoain-Garinoaingo hondakin-uren araztegia, Puiu hondakin-uren araztegia, Tafalla-Erriberriko hondakin-uren araztegia, Beire-Pitillasko hondakin-uren araztegia eta Traibuenasko instalazioak.

2.- Egoera larri horren aurrean, Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko Herri-lanen zuzendari nagusia, uztailaren 19ko 693/2019 Ebazpenaren bitartez, larrialdia deklaratu zuen eta “Construcciones y Excavaciones Erri-Berri SL” enpresari adjudikatu zizkion “2019ko uztailaren 8ko euriteek Tafallako Kontserbazio Zentroko errepideetan eragindako kalteak konpontzeko” obrak. Uholdeek ukitutako errepideetan egindako obrek 625.659,07 euroko (BEZa barne) inbertsioa eskatu dute, eta ondoren zehazten direnak dira: N-121, Iruña-Tutera; NA-8607, Tafallako sarbidea; NA-5100, Garinoain-Uzkita; NA-5151, Soltxaga; NA-5152, Orisoain; NA-5161, Amatriain; NA-5310, Uxue; NA-5330, Pitillas-Santakara-Melida; NA-2420, Dorre Elortzibar-Esa; NA-5110, Puiu-Lergako gaina; NA-5301, Erriberri-Beire; y NA-5163, Santsoain.

Aurreikusi den beste jarduketa bat da Santsoain herrirako sarbidean beste zubi bat egitea, egun dagoen behin-behineko pasabidearen orde. 700.000 euro inguruko aurrekontu-zenbatespena dago, baina litekeena da ibaiaren ibilguan egin behar diren zimendatze-lanak, behin-behineko pasabidea erretiratzea eta egin beharreko

desbideratzeak direla-eta aurreikusitakoa handitu behar izatea.

b) Bigarren puntuari dagokionez, ibilguen garbiketa ez da Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eskumenekoa.

Iruñean, 2019ko irailaren 24an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## Galdera, aurreko gobernuarekin alderatuta departamentuek eta zuzendaritza nagusiek izan duten guztizko gehikuntzari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aurreko gobernuarekin alderatuta departamentuek eta zuzendaritza nagusiek izan duten guztizko gehikuntzari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique

jaunak informazio-eskaera bat egin du Aurreko gobernuarekin alderatuta departamentuek eta zuzendaritza nagusiek izan duten guztizko gehikuntzari buruz (10-19/PES-00063). Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuako Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak ondotik datorren informazioa bidaltzen dio:

1. Aurreko gobernuarekin alderatuta, zenbatekoa izan da, guztira, kontseilarien eta zuzendari nagusien kopuruan izandako igoera?

• Kontseilariak: 4

• Zuzendari nagusiak, kudeatzaileak eta parekoak: 10

	2018ko abendua	2019ko iraila	2019-2018 aldea
<b>Kontseilariak</b>	<b>9</b>	<b>13</b>	<b>4</b>
Nafarroako Gobernuako Kontseilariak	9	13	4
<b>Zuzendari Nagusiak eta parekoak</b>	<b>31</b>	<b>41</b>	<b>10</b>
Zuzendari Nagusia	21	32	11
Nafarroako Gobernuaren Bruselasko Ordezkarria	1		-1
Zuzendari Kudeatzailea	8	8	0
Foruzaingoaren burua	1	1	0
<b>Guztira</b>	<b>40</b>	<b>54</b>	<b>14</b>

2. Igoera horren ondorioz, konfiantzazko zenbat langile gehiago (kabineteburu, idazkari tekniko nagusi eta administrazio-langile) aurreikusten da izendatu beharko dela? Departamentu bakoitzeko kopurua eta departamentu bakoitzeko langile-kopurua ezagutu nahi dut.

- Kabineteetako langileak: 47
- Idazkaritza Tekniko Nagusiak: 13

Departamentua	Lehendakariaren kabineteko aholkularia	Lehendakariaren idazkaria	Kabineteko burua	Kabineteko idazkaria	Kabineteko laguntzailea	Kabinetea, guztira	Idazkaritza tekniko nagusiak
Nafarroako Gobernua	3	1			2	6	
Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Dep.			1	1	2	4	1
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Dep.			1	1	1	3	1
Lurralde Kohesiorako Dep.			1	1	1	3	1
Ekonomia eta Ogasun Dep.			1	1	1	3	1
Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako Dep.			1	1	1	3	1
Migrazio Politiketako eta Justiziako Dep.			1	1	1	3	1
Hezkuntza Dep.			1	1	1	3	1
Eskubide Sozialetako Dep.			1	1	1	3	1
Osasun Dep.			1	1	2	4	1
Herritarrekiko Harremanetako Dep.			1	1	1	3	1
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Dep.			1	1	1	3	1
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Dep.			1	1	1	3	1
Kultura eta Kirol Dep.			1	1	1	3	1
	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>13</b>	<b>13</b>	<b>17</b>	<b>47</b>	<b>13</b>

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakarietzako, Berdintasuneko eta Funtzio Publikoko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren ondorioz departamentuek, zuzendaritza nagusiek eta izendapen askeko langileek izan duten gehikuntzaren kostuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren ondorioz departamentuek, zuzendaritza nagusiek eta izendapen askeko langileek izan duten gehikuntzaren kostuari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak informazio-eskaera bat egin du Nafarroako

Gobernuaren egitura berriaren ondorioz departamentuek, zuzendaritza nagusiek eta izendapen askeko langileek izan duten gehikuntzaren kostuari buruz (10-19/PES-00064). Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuak Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak ondotik datorren informazioa bidaltzen dio:

1. Kuantifikatu al du Gobernuak zer kostu izanen duen egitura berri honen ondorioz departamentuen, zuzendaritza nagusien eta izendapen libreko langileen kopurua igotzeak?

Igoera horrek zenbat diru eskatuko duela aurreikusten da?

Egitura berri honen ondorioz departamentuen, zuzendaritza nagusien eta izendapen libreko langileen kopurua igotzeak urtean 1.704.546,04 euroko kostua izanen du.

Lanpostuak		Urteko ordainsariak	Urteko gizarte segurantza	Ordainsarien kostua	Gizarte segurantzaren kostua	Gutzizko kostua
4	Kontseilaria	68.667,48	12.625,44	274.669,92	50.501,76	325.171,68
4	Kabineteko burua	54.762,54	15.450,11	219.050,16	61.800,43	280.850,59
0	Kabineteko idazkaria	33.112,52	10.474,60	0,00	0,00	0,00
2	Kabineteko laguntzailea	29.002,26	9.177,97	58.004,52	18.355,94	76.360,46
11	Zuzendari nagusia	58.836,54	12.625,44	647.201,94	138.879,84	786.081,78
-1	Gobernuaren Bruselako ordezkaria	80.228,27	15.450,11	-80.228,27	-15.450,11	-95.678,38
4	Idazkari tekniko nagusia	53.726,54	12.625,44	214.906,16	50.501,76	265.407,92
1	Zerbitzuko zuzendaria	53.726,54	12.625,44	53.726,54	12.625,44	66.351,98
	<b>Gutzira</b>			<b>1.387.330,97</b>	<b>317.215,07</b>	<b>1.704.546,04</b>

(\*) Gaur den egunean, ez dago igoyerarik behin-behineko eta izendapen askeko bestelako lanpostutan

2. Nafarroako 2018rako aurrekontu orokorretako 1 kapitulu ba al dago gastu horretarako aurrekontu-krediturik? Zer partidatan eta zer departamentutan? Behar adinako krediturik ez baldin badago, Gobernuak edo Ogasuneko kontseilariak nahitaezko aurrekontu-transferentzia egitea aurreikusten al du? Hala baldin bada, inda-

reko aurrekontuko zer partidatan gutxituko da kreditua Gobernuaren egitura organiko berritik heldu diren partida berriak gaitzeko?

Gastuen aurrekontu indardunean kreditu baliagarriak badago apartatuan aipatutako igoyerak 2019rako dakarren kostua ordaintzeko. "Ordain-

sari pertsonalak” izeneko 400000 41000 1400 322000 partidaren kargura kreditu-transferentzia bat egitea aurreikusi da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 27an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## Galdera, Nafarroako Gobernuaren txofer-zerbitzuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren txofer-zerbitzuari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 13ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren txofer-zerbitzuarekin lotutako zenbait gairi buruz (10-19/PES-00066). Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak erantsita datorren informazioa bidaltzen dizu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

### Barneko zuzendari nagusiaren txostena

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunaren idatzizko galderari

erantzuteko, gidari-zerbitzuari buruzko informazioa nahi baitu, hona hemen azalpena:

- 2019ko urtarrilaren 1ean 33 langile zeuden gidari-zerbitzuari atxikirik.

- Lehendakaritzako, Berdintasuneko eta Funtzio Publikoko Departamentuari atxikirik daude guztiak.

- Lehendakaritzako, Berdintasuneko eta Funtzio Publikoko Departamentuari atxikirik daude guztiak.

- Bai. Aurreko legegintzaldian, Nafarroako Gobernuak gidariak bularreko minbiziaren aurka diagnostikoak egiten dituen ibilgailua gidatzeko lanak egiten zituzten.

2019ko irailaren 1etik aurrera, zerbitzu hori Osasun Departamentuak ematen du.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak gidariaren bi egiturazko lanpostu sortu ditu, bata goizez eta bestea arratsaldean jarduteko, bularreko minbiziaren atzemate goiztiarreko unitate mugikorrek langileak eramateko.

- Bai, langile horiek zerbitzua ematen zuten Nafarroako Odol Bankuarentzako materiala garraiatzen zuten ibilgailuetan.

- Gobernu berria eratzean ez zaio utzi zerbitzu horiek emateari.

- Ez, zerbitzu horiek ez dira kanpoan kontratatu.

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Barneko zuzendari nagusia: Amparo López Antelo

## **Galdera, Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektorialaren behin betiko onespeneri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ezkabako eskualde-parkearen Udalez gaindiko Plan Sektorialaren behin betiko onespeneri buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 13ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-19/PES-00067 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak eskatutako informazioa eman eta honako hau jakinarazi behar dizu:

Nafarroako Gobernuaren 2018ko apirilaren 25eko Erabakiaz (2018ko ekainaren 21eko 119. Nafarroako Aldizkari Ofiziala) Ezkabako Eskualde Parkearen udalez gaindiko plan sektorialaren izapidetzea hasi zen.

Plan hori izapidetzen hasi baino lehen, 2018ko otsailaren 28an, Defentsa Ministerioak haren aurkako txostena eman zuen. Lurralde eta Paisaia Zerbitzuan jasotako bigarren txostenean, 2018ko ekainaren 15ean, ministerioak bere desadostasuna berretsi zuen.

Iruñerriko Mankomunitateak, zeina espedientearen sustatzailea baita, txostenaren erantzuna igorri zion Defentsa Ministerioari. 2019ko otsailaren 8an erantzun hori Foru Komunitateko Defentsako Ordezkariordeztari igorri zitzaion. Martxoaren 1ean, Defentsa Ministerioak berriz ere aurkako txostena eman zuen, zeina geroztik sustatzaileari igorri baitzaio.

Gogorarazi beharra daukagu Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, Defentsa Nazionalera afektaturiko lursail, eraikin eta instalazioei —eta baita haien babes-eremuei ere— eragiten dieten lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek, zeinahi motatakoak direla eta zeinahi izendapen dutela ere, Estatuaren Administrazio Orokorraren lotura-indarreko txosten bat beharko dutela, eragin horri dagokionez, onetsiak izan aurretik.

Horrenbestez, espedientea izapidetzen jarraitzeko, sustatzailearen erantzuna eta gero Defentsa Ministerioaren aldeko txostena behar dira.

Behin betiko onespenera dela-eta gertatutako atzerapenak, horrenbestez, ez du zerikusirik Defentsa Ministerioak Berribeiteko Udalean Ezkaba Mendian barruti bat ixteko proiektu bat aurkeztu izanarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena



## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak Nafarroaren funtsei eragindako gainkostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak Nafarroaren funtsei eragindako gainkostuari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 13ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Gobernuaren egitura ezartzeko dekretuak onesteak urte bako-

tzerako eta legegintzaldi osorako ekarriko duen gainkostuari buruz (10-19/PES-00068). Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak erantsita datorren informazioa bidaltzen dizu.

2019ko urriaren 4an, ez dira onetsi Nafarroako Gobernuko departamentuetako egiturak ezartzeko dekretu guztiak; hori dela eta, ez gaude informazio hori emateko moduan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteigüa

## **Galdera, egoitza-lekuen kudeaketarako esparru-akordio berriari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, egoitza-lekuen kudeaketarako esparru-akordio berriari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 13ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du egoitza-plazen kudeaketarako esparru-akordio berriari buruz (10-19/PES-00069). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

1. Zer gertatuko da esparru-akordiotik kanpo geratu diren egoitzetan plaza itundu bat betetzen ari diren pertsonekin? Horri buruzko zer planifikazio egin edo eginen du Eskubide Sozialetako Departamentuak?

Kontratazio-mahaiak esparru-akordioa ebatzi ondoren, eta behin ezagututa zein zentro aurkeztu diren esparru-akordiora, bisita bat programatu zen akordio horretara aurkeztu ez ziren eta lehenago

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziarekin plaza itunduak zeuzkaten egoitza guzti-guztietara. Hitzordua eman zitzaizen ukitutako pertsoneri (eta haien senideei), eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako arduradunak egoitza horietara joan ziren egoerari buruz informatzeko. Lehenbizi, aukera eman zitzaizen egoitza-plaza itundu batera alda zitezen, nahi bazuten. Ordura arteko egoitzan jarraitu nahi zutenei, berriz, azaldu zitzaizen zerbitzuari lotutako prestazio bat emanen zitzaizela, zeinak ordeztuko baitzuen gaur

egun administrazioa plaza itunduaren bitartez ordaintzen ari zen diru-zenbatekoa, halako moduz non aldaketa administratiboak ez zuen aldaketarik ekarriko gaur egun pertsonak ordaintzen ari diren zenbatekoan (tarifa publikoa).

Halaber, azaldu zitzairen ordainketa nola egingen zitzairen, aukera emanez, nahi bazuten, zenbatekoa zuzenean ordaintzeko egoitzari, halako moduz non egoera administratibo berriak ez zuen kudeaketarako zailtasunik ekarriko. Horretarako, beharrezkoa zen kasuko baimena sina zezaten.

Berlaratutako gutzietan gutun bat eman zitzairen ahoz helarazitako informazioarekin. Egoitzako arduradunek, gainera, gutuna bidali zieten bilerara joaterik izan ez zuten senideei (egoiliarrek gai ez ziren kasuetan).

Esparru-akordiotik kanpo (aurreko ituntze-sistemarekin alderatuta) geratutako 9 egoitzetara bisita egin zen maiatzean eta ekainean.

2. Zenbat pertsona ukituko ditu egoera honek?

229 pertsona ukitu ditu.

3. Zerbitzuari Lotutako Prestazio bat eskainiko zaien pertsonen bermatuko al zaie ez zaiela garestiago aterako plaza itundu batean egotea baino? Nola? Inolako araudi-aldaketarik egingen al da? Zein epetan?

Bai, bermatu da aldaketak ez duela inongo kalterik ekarriko aurreko egoeraren aldean.

Esparru-akordiora aurkeztu ez diren egoitzetatik bakarrik ere ez die aplikatuko plaza itundu bat zeukaten pertsonen 2.bis artikulua 1.d apartatuan ezarritako gehienekotik gorako tarifarik.

Ez da arauan inongo aldaketarik egin behar izan errealitate horri erantzuna emateko.

4. Horrela jokatzek bada, irizten al du Departamentuak berdintasunaren urraketa bat egon daitekeela plaza itundu baten zain dauden pertsonen dagokienez? Horri zer konponbide emateko asmoa du?

Ez da inongo arau-aldaketarik egingen; hori dela eta, ez da berdintasunaren urraketa egonen plaza itundu baten zain dauden pertsonentzat.

5. Kasua bada, hori egiteko zenbateko aurrekontu berezia beharko du Departamentuak? Zer partidatatik finantzatuko du?

Ez da aurrekontu berezirik beharko. Departamentuak egitate hori jada aurreikusia zuen "Zaharrentzako zentroen kudeaketa" (920005 93100 2600 231B04) eta "Zerbitzuari lotutako laguntzak" (920004 93200 4809 231B00) partidak zuzkitzeko kalkuluetan. Partida horiek, gainera, lotuta daude.

6. Beste egoitza batera joatea erabakitzen duten pertsonen dagokienez, zer planifikazio dabil Departamentuak, hori egiteko moduari buruz? Zer kostu izanen dute ekintza horiek? Zer partidatatik finantzatuko da?

Hiru pertsonak baino ez dute eskatu tokiz aldatzeko, plaza itundu batetik kanpo geratzeagatik. Horietatik bi jada eskatutako egoitzara aldatu dira. Hirugarrena plaza bat eskuragarri egoteko zain dago. Jarduketa horien kostua aurreikusita eta estalita dago aipatu berri ditugun partidekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko urriaren 3an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca